

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

Abenduaren 18an, Iruñeko Nafarroa Arenan amaituko da 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusia.

13.000 bertsozale elkartuko dira Iruñeko Nafarroa Arenan, goizez eta arratsaldez izango den bertso emanaldia jarraitzeko. Goizeko saioa 11:00etan hasiko da, eta arratsaldekoa, 17:00etan. Hedabideen aldetik ere jarraipen zabala izango du finalak, eta etxetik jarraitu ahal izango dute zale askok txapelketaren azken saio hau.

Hauek dira finalera sailkatu diren zortzi bertsolariak: Aitor Mendiluze Gonzalez, Alaia Martin Etxebeste, Amets Arzallus Antia, Beñat Gaztelumendi Arandia, Joanes Illarregi Marzol, Maialen Lujanbio Zugasti, Nerea Ibarzabal Salegi eta Sustrai Colina Acordarrementeria.

Iñaki Murua Jauregik jantziko dio txapela irabazleari; urte luzez bertsolaritzako eragile gisa egindako bidea aitortu nahi izan zaio horrela gabiriarrari. Bestalde, Bertsozale Elkartearen jardun eremuen isla, euskalgintzak, kulturgintzak eta nazioarteko kantu inprobisatuek ere parte hartuko dute sari-emate ekitaldian. Sari guztiak euskal sortzaileek egindako artelanak izango dira.



Bertsolariak

Aitor Mendiluze Gonzalez (Andoain, 1975)

Eskolan izan zuen lehen harremana bertsoekin. 1995ean eta 2007an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. Zazpigarren Bertsolari Txapelketa Nagusia du, eta seitan iritsi da finalera; txapeldunorde izan zen 2017koan.



Alaia Martin Etxebeste (Oiartzun, 1987)

12 urterekin hasi zen bertsoan. 2011n eta 2019an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan hirugarren postua lortu zuen, eta txapeldunorde izan zen 2015ekoan. Hirugarrenez ari da Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartzen eta lehen finala izango du.

Ametz Arzallus Antia (Hendaia, 1983)

Etxean bertso giroa zegoen, eta txikitatik hasi zen kantuan. Lau aldiz irabazia du Nafarroako Bertsolari Txapelketa, eta beste horrenbestetan Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako Xilaba txapelketa; azken honetan egungo txapelduna da. 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi zuen, eta txapeldunorde izan zen 2009an. Seigarren Bertsolari Txapelketa Nagusia du hau, eta bosgarren finala.



Beñat Gaztelumendi Arandia (Añorga, 1987)

Etetik datorkio bertsozaletasuna. 2015eko eta 2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak irabazi zituen; egungo txapelduna da. Laugarren aldiz hartu du parte Txapelketa Nagusian, eta hirugarren finala du.

Joanes Illarregi Marzol (Leitza, 1999)

Gaztetatik bertsolaritzan hasitakoa. Hiru aldiz hartu du parte Nafarroako Bertsolari Txapelketan, eta bitan iritsi da finalera. Bere lehen Bertsolari Txapelketa Nagusia du aurtengoa.





Maialen Lujanbio Zugasti (Hernani, 1976)

15 urterekin ekin zion plazaz plazako ibiliari. 2003an Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen, eta 2009an eta 2017an Bertsolari Txapelketa Nagusia; egungo txapelduna da. Txapeldunorde izan zen 2001ean eta 2013an. Zazpigarren aldiz hartuko du parte txapelketan; eta zazpitan izango da finalean.

Nerea Ibarzabal Salegi (Markina-Xemein, 1994)

12 urterekin hasi zen bertsoan. 2016an eta 2018an Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera sailkatu zen, eta 2021ekoan irabazi ere bai; egungo Bizkaiko txapelduna da. Bigarren aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian, eta lehen finala.



Sustrai Colina Acordarrementeria (Urruña, 1982)

1992an egin zuen lehen plaza. Bi aldiz irabazi du Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako Xilaba txapelketa: 2014an eta 2016an. Seigarren parte-hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian, eta seietan iritsi da finalera. 2017an, hirugarren postua lortu zuen.

Aurkezleak eta gai-emaileak

Alaitz Rekondo Ferrero, Aritz Bidegain Aire, Idoia Anzorandia Kareaga eta Ion Zaldúa Brit.

Epaileak

Ainhoa Sarasua Lascaray, Aitor Jimenez Tolosana, Amaia Otxotorena Gamio, Eneko Bidegain Aire, Eneritz Azkue Basurko, Joseba Beltza Bengoetxea, Joseba Santxo Uriarte, Miriam Juaristi Urizar eta Nerea Bruño Artazkoz.



Egin beharreko ariketak

Goizean (11:00) - 15 bertso puntuagarri

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian/lau puntuko handian¹.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian/lau puntuko txikian.
- Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian/lau puntuko txikian.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean².
- Ganbarako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Arratsaldean (17:00) – 10 bertso puntuagarri

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian/bost puntuko txikian.
- Binaka, gaia emanda, zortziko txikian/lau puntuko txikian, puntutan, zortzi bertso osatu arte.
- Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Buruz burukoa: 10 bertso puntuagarri

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso *Iparragirre abila dela* doinuan.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian/lau puntuko txikian.
- Ganbarako lana:
 - Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian³.
 - Gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

¹ Lehen adiera Hegoaldeko forman/bigarrena Ipar Euskal Herrikoan.

² Adiera zehatza: Zortzikoa, berdinareen moldekoa, sei puntuz/Sei puntukoa, berdinareen moldekoa.

³ Adiera zehatza: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, bederatzi puntuz/Bederatzi puntukoa, txikiaren moldekoa.

Sari emaileak eta sariak

Bertsolaritza ez ezik, Bertsozale Elkarteak jardun eremu dituen euskalgintza eta kulturgintza ere islatu nahi ditu oholtzan, sari banaketan, baita munduan zehar kantu inprobisatuaren eremuan utzi duen lorratza ere.

Txapela jartzen: Iñaki Murua Jauregi (Gabria, 1956)



Bertsolaria eta bertsolaritza mugimenduko eragile handia.

1982an aurkeztu zen lehen aldiz Bertsolari Txapelketa Nagusian, eta finalera iritsi zen 1986an eta 1989an; halaber, finalista izan zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, 1991n eta 1995ean.

Bere jaioterrian, beste zenbait herrikiderekin batera, bertsolaritzari hauspo handia emandakoa; esate baterako, Osinalde Sariketaren sorreran eta ibilbidean. Gabirian ez ezik, Euskal Herri osoan ere aritua: 2005 eta 2018 urteen artean Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaria izan zen.

Lehendakari izan denean zein ez, bertso munduan oso presente egon da Iñaki Murua beti. Gaur egun ere, figura oso garrantzitsua izaten jarraitzen du Bertsozale Elkartean. Maitasunetik eta zaintzatik aritzen da beti, eta bertso munduko gazte, heldu, boluntario, langile, zein gertuko guztiek estimu handian daukate.



Bigarrenetik zortzigarrenera

Irantzu Idoate Funosasek (Hazparne, 2005) emango dio saria bigarren sailkatuari. Bertsolaria, bera da 2022ko Euskal Herriko Eskolartekoaren bertsolari txapelduna.

Sagrario Aleman Astitzek (Etxaleku, 1952) banatuko ditu hirugarren eta seigarren sariak. Urte luzez izan da Iruñeko Arturo Campion euskaltegiko zuzendaria, eta Nafarroako euskalduntze mugimenduko erreferente nagusietako bat da Aleman.

Edurne Azkarate Sobrino (Oion, 1993) aktoreak ere hartuko du parte sari banaketan. 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiari buruzko *Aulki Jokoa* saioko aurkezlea izan zen Azkarate. Besteak beste, *Zaldi Urdina* antzezlanean ere aritua, eRRe Lanku Kultur Zerbitzuen emanaldiko zuzendaria da, eta aurkeztu berri den *Irati* filmeko aktore nagusietako bat ere bada. Laugarren eta zazpigarren sariak emango ditu.

Paulu Zedda (Sinnai, 1964) Sardiniako cantada bat-bateko kantuko inprobisatzailea da; cantadoria. Bertsozale Elkarteak harreman luzea du Sardiniako inprobisatzaileekin, hein handi batean Zeddari esker. Bosgarren eta zortzigarren sariak banatzeaz arduratuko da.

Sariak

Itziar Alduntzin donostiarrak hartu du irabazlearen txapela brodatzeko ardura. Gainera, **Mikel Lertxundi** berriatuarraren eskultura bat ere jasoko du lehenak.

Lau txapelketetako zikloa bete zuen 2017an bere garaian Bertsozale Elkarteko eragile zen Koldo Tapiaren ekimenez proposatutako eta Xabier Lakak egindako Eskutik Eskura artelanak. Garaikurrak jada azken lau txapelketetan bigarren egin dutenen izenak ditu alde banatan. Hala, aurtengoan beste artelan bat jasoko du txapeldunordeak: **Iker Valle** andoaindarraren brontzezko eskultura bat.

Hirugarren postutik zortzigarrenera bitarteko bertsolariek margolanak jasoko dituzte: **Jose Luis Zumeta**, **Dora Salazar**, **Carmelo Ortiz de Elgea**, **Marta Cardenas**, **Mariano Arsuaga** eta **Olatz Irigarai** sortzaileen artelanak, hain zuzen.



Oharrak

Ordutegia

9:00 Nafarroa Arenako ateen irekiera
11:00 Goizeko saioaren hasiera
14:30 Eguerdiko saioaren amaiera (*aurreikuspena)
16:00 Nafarroa Arenako ateen irekiera
17:00 Arratsaldeko saioaren hasiera
20:30 Arratsaldeko saioaren amaiera (*aurreikuspena)

Nafarroa Arenara iristeko

Antolakuntzak jarritako autobusak edo garraio publikoa erabiltzea eskatu nahi du Bertsozale Elkarteak. Ohar hau oso kontuan hartzea eskertuko dugu denok, pilaketak ekiditeko eta horrek eguneko martxa ez eragozteko.

Bertsozale Elkarteak autobusak antolatu ditu Aizpurua Autobusak enpresarekin lankidetzan. Bestalde, Iruñerriko autobus zerbitzu publikoko 1, 6, 9, 11 eta 16 lineek konektatzen dute Nafarroa Arena (edo inguruak) hiriko erdigunearekin zein beste auzoekin. Ordutegiak eta prezioak: www.infotuc.es.

Bidea autoan eginez gero, ibilgailua partekatzea eskatzen du Bertsozale Elkarteak. Iruñera A15 autobidetik sartuz gero, 83 edo 83B irteerak baliatu. Autoa aparkatzeko, Nafarroa Arena inguruetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren campusean zein Galaria merkataritza-gunean (La Morea) hainbat aparkaleku daude. Antolakuntzak, lehentasunez, merkataritza-gune honetan dauden aparkalekuak erabiltzeko gomendioa egiten dizu.

Nafarroa Arenan

Eremu bakoitzak (harmaila, pista, errebotea) bere sarbidea du, eta ezingo da eremu batetik bestera igaro. Solairu guztietan izango dira komunak eta taberna (azken hau bigarren solairuan salbu). Informazio gunea A atearen aldamenean egongo da; finala eraso matxistarik gabeko bertsoaren festa izatea nahi dugu, eta saioan gerta daitezkeen eraso matxistei erantzuteko bertan atonduko da puntu morea. Haur txokoa ere izango da pista dagoen solairuan.



Halaber, ezingo da objektu puntadunik sartu (tartean, aterki handirik), ezta beirarik, latarik, alkoholik edota sua eragin dezakeen materialik ere. Objektu horiek ekartzekotan, eguerdirako behar direlako, Sadar estadioan jarriko den kontsignan gorde beharko dira 8:00 eta 11:30 bitarte, eta goizeko saioa amaitutakoan jaso. Arratsaldean ez da kontsigna zerbitzurik izango.

Bazkariak

NUPeke kirol instalazioetan, Zubillaga Catering enpresaren eskutik, menua eskainiko da 24 euroren truke. Haragidun menua eta aukera beganoa eskainiko dira: txartelak, abenduaren 15era arte (egun hori barne), www.bertsosarrerak.eus atarian.

Sadar estadioan, etxetik eramandakoak estalpean jan ahal izateko aukera izango da. Estadioko taberna eta komunak erabilgarri izango dira, eta musika ere egongo da tarte horretan.

Bertsozale asko elkartuko gara egun horretan eta, mesedez, pazientzia eta errespetua. Jarraitu antolakuntzako kideen jarraibideei une oro. Denok eskertuko dugu!

Xehetasun gehiago, www.bertsozale.eus atarian.



Datu gehigarriak

Munduko beste kantu inprobisatu batzuetako ordezkariak eta ikertzaileak

Hemengo nahiz nazioarteko ikertzaileak eta munduko beste kantu inprobisatu batzuetako inprobisatzaile, aditu eta elkarteetako ordezkariak elkartuko dira finalaren egunean. Gainera, euren ekimenez etorritako hainbat glosadore (Herrialde Katalanetako kantu inprobisatuko inprobisatzaileak) eta zale katalanak ere izango dira finalean ikus-entzule.

- Galiziako Proxecto Educativo Regueifesta ekimenetik, Manolo Maseda eta Séchu Sende.
- Kataluniako Cor de Carxofatik, Alexandre Nebot i Ventura eta Carles Buguera i Martin.
- Glosadors de Mallorca elkartetik, Maribel Servera eta Mateu Xuri.
- Madeirako Xarabanda elkarteke Paula Cristina da Silva Fernandes eta Roberto Carlos Freitas Moniz.
- Sardiniako Cordinamentu Artes Musicales et Poëticas de Tradizioni Orali de Sardegnatik, Antoni Orrú, Prof. Busianu Pilosu eta Paulu Zedda.
- UPV/EHUko Mikel Laboa Katedratik, Jone Miren Hernandez eta Pio Perez.
- Nevadako Unibertsitatetik, Iñaki Arrieta, Larraitz Ariznabarreta eta Xabier Irujo.
- Beste hainbat ikertzaile: Alfredo Asiain, Amaya Carricaburu, Antxoka Agirre, Beñat Krolem, Edmilson Ferreira, Emilio Ros, Giovanni Ragni, Jesus Fernandez, Jon Sarasua, Juan Joxe Zubiri, Prof. Marco Lutz, Marta Fernandez, Rafael Yuste eta Xian Naya.

Hedabideen jarraipena

Abenduaren 18ko finala bertatik bertara ez ezik, etxetik ere jarraitu ahal izango da. EITBk eta Bertsozale Elkartek lankidetzan, bertso saioa zuzenean eskainiko dugu egun osoan ETB1en eta www.bertsoa.eus eta www.eitb.eus atarietan. Halaber, txapelketako zenbait hedabide laguntzailek emango diote oihartzuna zuzeneko emankizun honi beren webguneetan.





Gainera, irrati batzuek zuzeneko emankizuna eskainiko dute, eta prentsa idatziko kazetari ugari ere izango dira Nafarroa Arenan.

350 lagunetik gorako lantaldea

Bertsozale Elkarteak 350 lagun baino gehiago jarriko ditu lanean finaleko eguna ongi atera dadin. Langileak ongi identifikatuta egongo dira, eta bertsozaleak lagunduko dituzte saio hasieran, bitartean eta amaieran. Bertsozale Elkarteko langileen eta boluntarioen lantaldearen zeregina gauzak ahalik eta ondoen joatea da; antolakuntzatik une oro beren lanetan laguntzea eta haien argibideak segitzea eskatzen dugu.



Txapeldunak txapelketaren ibilbidean

Urtea	Lekua	Txapelduna
1935	Donostia	Iñaki Eizmendi <i>Basarri</i>
1936	Donostia	Manuel Lujanbio <i>Txirrita</i>
1960	Donostia	Iñaki Eizmendi <i>Basarri</i>
1962	Donostia	Manuel Olaizola <i>Uztapide</i>
1965	Donostia	Manuel Olaizola <i>Uztapide</i>
1967	Donostia	Manuel Olaizola <i>Uztapide</i>
1980	Donostia	Xabier Amuriza
1982	Donostia	Xabier Amuriza
1986	Donostia	Sebastian Lizaso
1989	Donostia	Jon Lopategi
1993	Donostia	Andoni Egaña
1997	Donostia	Andoni Egaña
2001	Donostia	Andoni Egaña
2005	Barakaldo	Andoni Egaña
2009	Barakaldo	Maialen Lujanbio
2013	Barakaldo	Amets Arzallus
2017	Barakaldo	Maialen Lujanbio

Informazio gehiago: <https://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/1671-bertsolari-txapelketa-nagusia>



Komunikazio bulegoa

Euskal Herriko Bertsozale Elkartea
Kale Nagusia, 70
20150 Amasa-Villabona

Tel.: (+34) 943 694 129

E-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

